

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

17. astea (2025eko apirilaren 21etik 27ra)

Gripe-birusaren eta ABSren zirkulazioak beheranzko joerarekin jarraitzen dute, jaitsiera eta igoera txikiekin azken honen kasuan. COVID-19 kasu kopurua balio baxuetan mantentzen da.

- ***Aste honek jaiegun bat dauka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotakoetan.***
- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 211,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (191,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egiten jarraitzen du. Bronkiolitisaren tasak gora egin du aste honetan eta COVID-19arena balio baxuetan mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 25 lagin jagoleen % 48,0 baieztatu da, 3 SARS-CoV-2 detektatu direlarik, baina ez gripe-birus ala ABSik.
- Osakidetza ospitale-sarean AIA larriaren tasa 10,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,6/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 41 SARS-CoV-2, 34 gripe-birus eta 8 ABS erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 211,5 kasukoa izan da (191,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 179,1/100.000 izan da Araban, 222,2/100.000 Bizkaian eta 209,5/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2187,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 64 urtetik gorako adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 749,2 eta 258,1 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 77,8 kasukoa izan da (66,5/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ia ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 17. astea	Tasa 16. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	192,5	193,5	0,99 (0,88-1,12)
Arabar Errioxako ESI	374,1	272,1	1,38 (0,87-2,16)
Barakaldo-Sestaoko ESI	187,9	178,4	1,05 (0,88-1,26)
Barrualde-Galdakaoko ESI	238,9	215,6	1,11 (1,00-1,23)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	251,0	210,5	1,19 (1,08-1,32)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	206,3	175,9	1,17 (1,00-1,37)
Uribeko ESI	168,4	164,3	1,03 (0,89-1,19)
Bidasoako ESI	169,6	172,2	0,98 (0,77-1,25)
Debararrenako ESI	236,1	195,6	1,21 (0,97-1,51)
Debagoienako ESI	174,5	162,0	1,08 (0,82-1,41)
Donostialdeako ESI	200,1	177,6	1,13 (1,01-1,25)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	222,6	208,0	1,07 (0,88-1,30)
Tolosaldeako ESI	236,8	218,2	1,09 (0,86-1,36)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 1,5 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (1,7/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 100.000 biztanleko 171,0 kasutan kokatu da (135,4/100.000 aurreko astean). COVID-19arena baxu mantentzen da eta 100.000 biztanleko 1,9koa izan da (1,5/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 25 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 48,0 baieztatu dira. 3 SARS-CoV-2 atzeman dira, baina ez gripe-birus ala ABSik. 4 metapneumobirus eta 3 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 0,0ra jaitsi da aste honetan (% 7,1 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 12,0raino jaitsi da (% 14,3 aurreko astean) eta ABSrena % 0,0an mantentzen da (aurreko astean bezala). Errinobirusaren positibotasuna % 12,0koa izan da (% 21,4 aurreko astean).

**Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin
jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE**


	17. astea		16. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	1	7,1	521	30,5
SARS-CoV-2	3	12,0	2	14,3	38	2,2
ABS	0	0,0	0	0,0	70	4,1
Metaneumobirus	4	16,0	1	7,1	57	3,3
Parainfluenza	0	0,0	2	14,3	66	3,9
Adenobirus	0	0,0	2	14,3	71	4,2
Errinobirus	3	12,0	3	21,4	288	16,9
Urtaroko CoV	2	8,0	0	0,0	89	5,2
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	42	2,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 10,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,6/100.000 aurreko astean), 11,5/100.000 gizonetan eta 10,1/100.000 emakumeetan.

**AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 88,7 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 31,2 eta 11,2 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,3koa izan da 100.000 biztanleko (0,4/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,1ekoa 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,2 kasukoa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birokologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du aste honetan eta % 4,8an kokatu da (% 5,8 aurreko astean). ABSrena % 2,8an mantendu da (% 3,0 aurreko astean) eta SARS-CoV-2aren positibotasuna % 3,9ra igo da (% 2,2 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	17. astea		16. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	178	3,9	184	2,2	8003	2,2
Influenza	145	4,8	137	5,8	7225	24,1
ABS	145	2,8	134	3,0	6731	11,1

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 41 SARS-CoV-2, 34 gripe-birus eta 8 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 34 gripe-birusetatik, 18 A motakoak izan dira, 10 A(H3), 5 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2024/40 astetik 9198 detekzio erregistratu dira, 7195 (% 78,2) A motakoak eta 2003 (% 21,8) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3639 birusetatik, 2470 (% 67,9) A(H3) eta 1169 (% 32,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko apirilak 30

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza